

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
41	1.625	55	529
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
3.116	2	6.736	
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	
*Hernanin 78 Astigarragan 24			

## Udako zinemaldia datorren asteazkenetik ostiralera egingo da Atsegindegin bosgarren urtez jarraian

Potemkin Taldeak antolatu du eta hiru pelikula eskainiko dira: 'Hrútar' islandiarra, 'Mogari no mori' japoniarra eta 'Kovasikajuttu' finlandiarra.

### HERNANI ZINEA

Bosgarren urtez jarraian, Potemkin Taldeak Udako Zinemaldia antolatu du abuztuaren 5, 6 eta 7an. Emanaldiak Atsegindegin izango dira, gaueko 22:00etan hasita. Aurtengo edizioak egun bat gehiago iraungo duenez, hiru pelikula (gauero bat) proiektatuko dira. Hirurak jatorrizko bertsioan ikus ahal izango dira, gaztelarazko azpi-datziekin lagunduta. Islandia, Japon eta Finlandiako ekoizpenak dira.

Aurreneko proiektzioa abuztuaren 5ean (asteazkena) eskainiko da: *Hrútar (ahariak)*, 2015eko islandiar ekoizpena da. Ingelesezko bertsioan, *Rams* ipini diote; eta gaztelarazkoan, *El valle de los carneros*. Pelikulan islandiako mendialdeko bizimoduaren erretratua egiten da, hango paisaia sinestezinen edertasuna erakusten den bitartean. Grímur Hákonarson da pelikula honen zuzendari eta gidoilaria. Urte berean (2015), Film Onenaren Saria eskuratu zuen Cannesen (Un certain regard sailean) eta Valladoliden (Seminci). Eta Oscar sarietara izendatua izan zen.

### Bi islandiar anai artzainen arteko erlazioa

Gummi eta Kiddi anaiak dira eta Islandiako bailara bakarti batean bizi dira artzain, nork bere artaldea zaintzen. Berrogei urte baino gehiago daramatzate elkarri hitza zuzendu gabe. Euren ardiak herrialde osoko onenak omen dira. Baina bapateko gaitz batek mehatxupean jarriko ditu, ez Kiddiren ardiak bakarrik, bailarakoak baizik. Gaitzaren hedapena gelditzeko

asmoz, animalia guztiak hiltzea erabakiko dute agintariek. Indarrak batzeko beharra izango dute orduan bi anaiek, artaldeak mantentzeko.

### Zaintzailearen eta egoiliar baten historia

Hurrengo egunean, abuztuaren 6an, (osteguna): *Mogari no mori (El bosque del luto, gaztelarazko bertsioan; The morning, ingelesezkoan) (2007)*, Naomi Kawase (gidoia eta zuzendaritza) japoniarren filma proiektatuko da. Aurkikuntza bidaia bat da, zaharren egoitzan bizi den gizon batek bertako zaintzaileetako batekin, basoan barrena doazela, elkarrekin egingo dutena. Epaimahaiaren Sari Nagusia lortu zuen Cannesen, urte berean.

Shigeki zaharretxe txiki batean bizi da, eroso eta pozik. Machikok, bertako langileetako batek, beste paziente batzuei baino arreta gehiago eskaintzen dio Shigeki agureari. Baina Machikok sekretupean bizi du bere oinazea semea galdu izanagatik. Shigekiren urtebetetze ospakizunaren ostean, Machikok mendira paseatzera eramatea erabakiko du. Bide erdian, autoa bazterreko zangan eroriko da eta beharturik sentituko dira aurkikuntza bidaian abiatzera, elkarrekin, oinez basoan zehar. Azkenean Shigekiren emaztearen hilobira helduko dira. Orduan konturatuko da Machiko Shigekik, bere emazteari, 33 urtez idazten aritu zaiola.

### Desgaitasun sikikoa duten lau gizonek punk taldea dute

Hirugarren emanaldia abuztuaren 7an (ostirala) izango da: *Kovasikajuttu (Punk Sindromea,*



Ahariak eta bi anai dira protagonista 'Hrútar' pelikulan.



Punk talde bat osatzen dute lau finlandiarrek 'Kovasikajuttu'-n.

2012). Izenburu bera eman diote ingelesez nahiz gaztelaniazko bertsioan). Finlandiar pelikula honetan osasun mentalaren ispiaren beste aldean gertatzen dena jasotzen da. Jaiotzetik desgaitasun sikiko larriak dituzten lau lagun dira protagonista bereziak. Pelikula hau 'anormalitate'ari bihotzez egindako omenaldia dela esan daiteke. Jukka Kärkkäinen eta Janni Petteri Passi, zuzendari eta gidoilari lanetan aritu dira biak. Passi, gainera, argazkiaz ere arduratu da.

Punk talde bat ezgaitasun sikikoa duten lau finlandiarrez osatua. Pertti, Kurikan, Nimpäivät, borroka eta oihuka egiten dute, protesta egiten dute eta kontzertuen ostean osasun zentrora itzultzen dira. **K**



'Mogari no mori' pelikularekin irudi bat



**Obradore nagusia Akarregin**  
Akarregi poligonoa 14A-2  
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA  
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00  
Jalegunetan: 7:00-14:30

**Denda herriko kaxkoan**  
Lizeaga kalea 4  
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN  
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00  
Jalegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria  
beti zure eskura

**AITAN-ETXE TABERNA**

Larramendi, 15  
943 55 00 46



**MENDIKUZE OKINDEGIA, S.L.**



Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia  
20115 - ASTIGARRAGA  
Tel 943 55 15 38  
(J) 630 38 79 10  
(S) 629 66 69 77



**682 156 795**  
Kale nagusia 5, Astigarraga



**EGURALDIA**  
**GAUR** Temperaturak beste apur bat egingo du behera eta fresko antean igaroko dugu igandea. Tarteka euri txikia egingo du, goizean batez ere. **Min.17° / Max.21°**

**BIHAR** Astelehenerako ez da aldaketa handirik espero behar, nahiz eta arratsaldean giro argiagoa izango den. Eguna lainoan hasiko da eta arratsaldeko lainoak saretu egingo dira. **Min.17° / Max.22°** (euskaletan)

**ARGITARATZAILEA**  
**DOBERA** EUSKARA ELKARTEA  
**LAGUNTZAILEAK**  
Hernaniko Udala  
Astigarraga Udala  
Euzko Udala  
Goizuetako Udala  
Aranoko Udala

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Aldabe Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Gaez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**  
Euzko Jaurlaritzaren Gobernua  
Gipuzkoako Foru Aldundia



Hodei Lujanbio, txalo artean, Goizuetako plazara iristen. Argazkiak: Felix Loiarde

## Hodei Lujanbiok marka berria jarri du Goizueta-Mandoegi-Goizuetan

10,5 kilometroko ibilbidea 1h02:10ko denboran egin du, aurreko Martin Etxeberriaren denbora zazpi minutu eta 41 segundotan jaitsiz

**GOIZUETA** MENDI LASTERKETA

Hodei Lujanbiok marka berria jarri du Goizuetako plazatik atera, Mandoegira igo eta berriz plazara itzuli behar den ibilbidean. Ordu bete, bi minutu eta 10 segundoko denbora behar izan zuen atzo, 10,5 kilometroko, ibilbidea egiten eta aurreko marka zazpi minutu eta 41 se-

gundotan hobetu zuen.

Martin Etxeberriak zuen, 2013an, egina marka eta zalan-tzak bazeuden ere, erraz gainditu zuen denbora.

Goizeko 09:30etan irten zen Goizuetako plazatik eta jende asko pilatu zen helmugan iritsiera ikusteko. 10:30ak aldera helmugaratu zen herritarren txalo artean. **K**



Zorionak jaso zituen.

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Herri hau ez da adinekoentzat

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak edo patineteak ugaritu egiten dira gure oinezkoen ingurunean, araurik eta legerik gabe, eta istripuak eragiten dituzte, batez ere adinekoen osotasun fisikoaren aurka. Istripu horiek erantzukizun zibil ororengatik zigorrik gabe geratzen dira, gure hiri eta herrietan zirkulatu ahal izateko aseguru bat kontratatze-ko betebeharririk ez dagoelako.

Lehenengo egunean bat gertatu zen Hernanin, Villa Maria parkean, 4 edo 5 neska-mutilek osatutako talde batek eraginda, eta lasai-lasai paseatzen ari ziren hiru emakumeren gainera erori ziren. Zorritzarrez, horietako bat, harrapaketa saihesteko, okertu egin zen, baina patineteetako baten gurgipalak erorarazi zuen.

Adingabeek ihes egin zuten, hainbat lekuko haien bila joan ziren arte. Udaltzainek adineko emakumea artatu zuten, eta ambulanzian eramane zuten ospitalera.

Bertan, aldakako haustura bat diagnostikatu zioten, eta txosten bat egin zuten, mutilek esan zuten, adinekoa beldurtu eta erori egin zen, erantzukizunik gabe. Biktimaren familia Udaltzaingoaren bulegoetara joan zen gertatutakoaren berri izateko eta erantzukizunak eskatzeko.

Txostena egin zuten agenteei gaueko txandan deitzeko eskatu zitzaizkien. Deia jaso zuen agenteak defentsari erantzun zion, emakumea erori bazen 'zorte txarra' izan zela argudiatuz.

Hona hemen istripuaren erantzulea, zorte txarra. Familiak ez du inoiz jaso istripu baten edozein biktimari merezi duen begirunerik, ez adingabeen arduradunen aldetik, ez agintari eskudunen aldetik; ez dute inoiz interesik izan gertaeren beste bertsioa jakiteko.

Kalte fisiko eta morala egin da dago, eta familia arduratzen da biktimaz, baina patineteek eragindako segurtasun faltak bere horretan jarraitzen du herriko kale eta parkeetan. Noiz arte itxaron beharko da adinekoen lasaitasuna bermatuko duen araudi bat? Espero dut ez dugula kalte haundiagorik egin behar erreakorako.

**Julia Merino Ponsard**

## Larrañaga eta Juanenea, nagusi

Buruz burukoaren lehenengo jardunaldian 30-23 eta 30-9 gaintitu dituzte hurrenez hurren Zaldua eta Aizpuru III.

**HERNANI** ERREMONTEA

Buruz burukoaren lehenengo bi partiduak jokatu ziren atzo Galarretan eta Juanenea eta Larrañagak lortu zituzten bi garai-penak. Hori bai, bi partiduak oso desberdinak izan ziren.

Lehenengoan, Juaneneak

30-23 gaintitu zuen Aizpuru III.a partidu borrokatu, berdindu eta eder batean. Jaialdiko hirugarrenean berriz, Larrañaga jaun eta jabe izan zen Zalduaren kontra eta 30-9 irabazi zuen. Datorren asteko asteartean eta ostegunean geratzen diren bi jardunaldiak jokatu dira eta ostiralean aurkeztuko da Kutxa-bank Torneoa.

Bestetik, binakako estelarean, Ansa II eta Barrenetxeak 40-30 gaintitu zituzten Urriza eta Endika, gorrien partidu bikain batekin. Barrenetxea izan zen onena. **K**

## Salbuespeneko espetxe politikaren amaiera eskatuko da gaur hondartzetan

**URUMEA** PRESO ETA IHESLARIAK

Ettxerat berriz bilduko da Euskal Herriko hondartzetan, gaur, salbuespeneko espetxe politikaren behin betiko amaiera eskatzeko. Ondorengo hondartzetan elkarrekin egoteko deia egin dute euskal herritarrei: Gipuzkoan eguerdiko 12:00etan: Donostia, Hondarribia, Mutriku, Orri, Zarautz eta Deba. Hernaniko preso senide eta lagunek Orioko hondartzara joateko deia egin dute. 11:15etan lokala parean (Aristizabal 5) geratuko dira kotxetan Oriora joateko.

## Pilota eskolan, izenematea gaur arte

**GOIZUETA** PILOTA

Epea zabalik dauka Umore Ona kirol elkarteak, pilota eskolan izena emateko, datorren denboraldirako. Bost urtetik gorako neska-mutil guztiek daukate aukera, gaur arte. Horretarako, 645 056 163 telefonora deitu behar da, edo WhatsAppetik idatzi.

## Portuko jaiak bertan behera geratu dira

**HERNANI** PORTU AUZOA

Portu auzoko jai batzordeak erabaki berri du aurtengo festak bertan behera uztea. «Egungo egoera sanitarioaren eraginez hartutako neurria izan da» diote jai batzordeko kideek.

## † MARGARITA ARRUE AMONARRAIZ

(Simon Zapiainen alarguna)

Atzo hil zen, 97 urte zituela

- Goian Bego -

Seme-alabak: Mari Cruz eta Jose Mari Goikoetxea; bilobak: Ibon eta Ruth Zapirain, Garbiñe eta Cesar Otamendi; birlobak: Intza, Paula, Beñat, Naia eta Maren, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Gure esker sentikorrenak Maria Magdalenako langileei.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2020ko abuztuaren 2an**

Helbidea: Santa Maria Magdalena Egoitza  
OHARRA: Gorputza **HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN** egongo da gaur igandea arratsaldeko 20:30ak arte.

## IRAGARKI MERKEAK

**Etxebizitza bat alokatzen da Latxunbe Auzoan.** 3 logela. 750 euro hilean. **Deitu 650 14 99 60**  
**Etxebizitza bat salgai Martindegi Auzoan.** Interesa duenak. **Deitu 676 55 86 96**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**